Su finalidad será la de impedir que personas, entidades, asociaciones empresariales y sindicales, puedan invadir el ámbito competencial específico de la profesión de Graduado Social y asimismo tratar de detectar aquellos actos que sean constitutivos de competencia desleal, tal y como aparece definida en la Ley 3/1991, de 10 de enero. A tal efecto, formulará propuestas a la Junta de Gobierno de los correspondientes expedientes administrativos o acciones ante la jurisdicción que procedan, previa información de las denuncias y documentos que se participen.

Esta Comisión deberá mantener contactos periódicos con aquellos Colegios Profesionales radicados en Canarias, que pudieran resultar afectados.

Comisión de Ética y Honorarios Profesionales.

Será la encargada de informar a la Junta de Gobierno, de aquellas actuaciones de los colegiados que no se ajusten a la ética y a la deontología profesional, emitiendo su parecer sobre las posibles reclamaciones contra las minutas de los colegiados.

Comisión de Asesoramiento a la Presidencia.

Tendrá como misión mantener informado regularmente al Presidente del Colegio en todos los asuntos que él mismo considere de interés para la mejor satisfacción de los intereses colegiales. Estará constituida por todos los ex-presidentes del Colegio y será la que propondrá a la Junta de Gobierno la concesión de Medallas al Mérito Colegial y Colegiados de Honor a aquellas personas o instituciones que sean acreedoras a tales distinciones.

Comisión de Relaciones Públicas e Instituciones.

Sus funciones serán las de propuesta e informe en todos aquellos asuntos en los que fuese conveniente para los intereses colegiales y generales. Así como la difusión, a través de los medios de comunicación social, de una imagen acorde con las exigencias actuales de la profesión.

Con la misma finalidad, sugerirá a la Presidencia su participación en cuantos actos deba estar representado el Colegio, tales como conferencias, congresos y asambleas profesionales. Igualmente y en el mismo sentido,

harremanak zein erakunde publikorekin edo pribaturekin izan proposatuko dio, elkargoak gizartean erakunde mailako proiekzio egokia izan dezan harreman errazak eta etenik gabekoak ezartzearren.

Estatutu hauetan ezartzen diren batzordeez gain, Gobernu Batzordeak egoki iritzi dituen guztiak sortu ahal izango ditu, behin betiko edo aldi baterako izaerarekin, eta batzorde bakoitzaren egitekoak eta jardunbide-araudia zehaztuko ditu.

Elkargoko lehendakaria izango da batzorde eta ponentzia guztien buru, joaten denean, edo bestela, lehendakariak izendatzen duen Gobernu Batzordeko kidea. Lehendakariaren edo bere ordezkariaren erabakiek proposamen izaera izango dute eta Gobernu Batzordeari aurkeztu beharko zaizkio, onartuak edo ezetsiak izan daitezen, elkargo bakoitzeko estatutuetan aurreikusten diren salbuespenekin.

BIGARREN KAPITULUA
ELKARGOKIDEEN ERABAKIAK

LEHENENGO ATALA
BATZAR NAGUSIAREN ETA GOBERNU BATZORDEAREN ERABAKIAK

57. artikulua.– 1.– Batzar Nagusiak bertaratutakoen botoen gehiengoarekin hartuko ditu erabakiak, estatutu hauetako 43. eta 44. artikuluetan bozketetarako eta botoa eman ahal izateko ezarritako baldintzetan.

2.– Erabakiek elkargokide guztiak behartzen dituzte, hartzen diren unetik hasita, kapitulu honetako bigarren atalean ezartzen dena alde batera utzi gabe.

58. artikulua.– 1.– Gobernu Batzordeak botoen gehiengoz hartuko ditu erabakiak.

2.– Baliozko erabakiak hartzeko nahikoa izango da bertaratutako kideen gehiengo soila edo erlatiboa izatea, estatutu hauetan ezarritako «quorum» berezia behar denean izan ezik.

3.– Batzar Nagusietan, Gobernu Batzordeetan eta batzordeetako bileretan ez dira baliozkoak izango posta bidez eskuordetutako botoak.

59. artikulua.– Nolanahi ere, lehendakariaren botoak ebatziko ditu berdinketak.

60. artikulua.– Ohiko eta Aparteko Batzar Nagusiaren erabakiak berehala betearaztekoak izango dira, Gobernu Batzordeak berak beste zerbait xedatzen duenean izan ezik.

61. artikulua.– Erabakien baliogabetasuna, deusezak edo deuseztagarriak direla zehaztea, Administrazio Prozedurari buruzko Legean aurreikusitakoaren arabera egingo da.

propondrá a la Junta de Gobierno aquellos contactos con las Instituciones públicas o privadas de cara al establecimiento de relaciones fluidas y permanentes para posibilitar la proyección institucional del Colegio en la sociedad.

Además de las Comisiones que establezcan estos Estatutos, la Junta de Gobierno podrá crear todas aquellas que estime oportunas, ya sea con carácter permanente o transitorio, determinando sus respectivas misiones y cometidos al igual que el régimen de su funcionamiento.

Todas las Comisiones y Ponencias serán presididas por el Presidente del Colegio, si asistiere, o por el miembro de la Junta de Gobierno que designare aquél. Sus acuerdos tendrán el carácter de propuestas, que habrán de ser elevadas a la Junta de Gobierno para su aprobación o desestimación, con las excepciones que se prevean en los Estatutos particulares de cada Colegio.

CAPÍTULO SEGUNDO
DE LOS ACUERDOS COLEGIALES

SECCIÓN PRIMERA
DE LOS ACUERDOS DE LA ASAMBLEA GENERAL Y DE LA JUNTA DE GOBIERNO

Artículo 57.– 1.– La Asamblea General adoptará los acuerdos por mayoría de votos de los asistentes en las condiciones establecidas para las votaciones y el ejercicio del voto, en los artículos 43 y 44 de estos Estatutos.

2.– Los acuerdos obligan a todos los colegiados desde el momento de su adopción, sin perjuicio de lo establecido en la sección segunda de este capítulo.

Artículo 58.– 1. La Junta de Gobierno tomará los acuerdos por mayoría de votos.

2.– Para la adopción de acuerdos válidos, será necesaria la existencia de mayoría simple o relativa de miembros asistentes a las Juntas, salvo cuando se requiera un «quórum» especial, establecido en este Estatuto.

3.– En las Asambleas Generales, Juntas de Gobierno y reuniones de las Comisiones, no serán válidos los votos delegados o por correo.

Artículo 59.– En todo caso, dirimirá los empates el voto del Presidente.

Artículo 60.– Los acuerdos de la Asamblea General Ordinaria y Extraordinaria y los de la Junta de Gobierno, serán inmediatamente ejecutivos, salvo que la propia Junta disponga lo contrario.

Artículo 61.– La invalidez de los acuerdos, la determinación de su nulidad o anulabilidad, se ajustará a lo previsto en la Ley de Procedimiento Administrativo.

BIGARREN ATALA
ERABAKIEN ETA HORIEN INPUGNAZIOAREN ARAUDIA

62. artikulua.– 1.– Beren egitekoak betetzerakoan Batzar Nagusiak eta Gobernu Batzordeak hartutako akordioak eta lehendakariak eta elkargoko organoek hartutako erabakiak berehala betearaztekoak izango dira, akordioak berak beste zerbait ezartzen duenean edo elkargokideen diziplina-araubideari dagokionean izan ezik.

2.– Lehendakariak edo lehendakaritzan ordeztu duenak eta idazkariak edo idazkari lanak egin dituenak sinatuko ditu aktak.

3.– Gobernu Batzordeak hartutako akordioen aurka gora jotzeko errekurtsoak jar daitezke dagokion Kontseiluan, hilabeteko epean, argitaratzen denetik aurrera edo, hala egokituz gero, interesdunari jakinarazten zaionetik aurrera.

Erabakia eman zuen Gobernu Batzordeari aurkeztuko zaio errekurtsoa eta honek dagokion kontseiluari igorriko dio hamar eguneko epean, horrekin batera, bere txostena eta espedientearen kopia osoa eta ordenatua bidalita.

Errekurtsoa aurkeztean adierazi behar dira:

a) Errekurtso-egilearen izen-abizenak, jakinarazpenak nola egingo zaizkion eta, hala badagokio, nora bidaliko zaizkion.

b) Zein egintzaren aurka egiten den errekurtsoa eta zergatik.

c) Errekurtsoa egiten duen pertsonaren datuak, eta errekurtsoaren lekua eta eguna.

d) Zein organori aurkezten zaion.

e) Xedapen berezietan ezarritako gainerako zehaztasunak.

4.– Errekurtsoa aurkezteak ez du aurka egindako egintza betearaztea eteten, xedapen batek aurkakoa ezartzen duenean izan ezik. Izan ere, kontseiluak erabaki dezake egintzaren betearazpena etetea, bere kabuz edo errekurtso-egileek eskaturik, errekurritutako egintza betearazteak konpon ezinezko edo konpontzeko oso zailak diren kalteak ekar baditzake, baina, horretarako, arrazoiak emanda; neurtu egin behar du, batetik, etendurak zer-nolako kalteak eragin diezazkiokeen elkargoaren interesari edo beste inori, eta bestetik, errekurtsoa izan duen egintzaren berehalako eraginkortasunak zein kalte egiten dion errekurtso-egileari. Erabaki dezake egintzaren betearazpena etetea, halaber, inpugnazioaren oinarrian estatutu hauetako 70.3 artikuluan aurreikusten den zuzenbide osoko deuseztasuneko kausaren bat baldin badago.

Hogeita hamar eguneko epean hartu beharko da eteteko erabakia, eskabidea egiten denetik aurrera, eta epe hori igaro ondoren beren beregiko ebazpenik ematen ez bada, emandakotzat jo beharko da.

SECCIÓN SEGUNDA
EL RÉGIMEN DE LOS ACUERDOS Y SU IMPUGNACIÓN

Artículo 62.– 1.– Los acuerdos de la Junta General y de la Junta de Gobierno del Colegio y las decisiones del Presidente y demás miembros de los órganos colegiados, dictadas en el ejercicio de sus funciones, serán inmediatamente ejecutivos, salvo que el propio acuerdo establezca otra cosa o se refiera al régimen disciplinario de los colegiados.

2.– Las actas serán firmadas por el Presidente o por quien le hubiere sustituido en la presidencia y por el Secretario o quien hubiere desempeñado sus funciones.

3.– Los acuerdos adoptados por la Junta de Gobierno podrán ser objeto de recurso de alzada ante el Consejo correspondiente dentro del plazo de un mes desde su publicación o en su caso, notificación a los interesados.

El recurso se presentará ante la Junta de Gobierno que dictó el acuerdo, la cual deberá remitirlo al Consejo correspondiente en el plazo de diez días, con su informe y con una copia completa y ordenada del expediente.

La interposición del recurso deberá expresar:

a) El nombre y apellidos del recurrente así como la identificación del medio y en su caso, del lugar que se señale a efectos de notificaciones.

b) El acto que se recurre y la razón de su impugnación.

c) Lugar, fecha e identificación personal del recurrente.

d) Órgano al que se dirige.

e) Las demás particularidades exigidas en su caso por las disposiciones específicas.

4.– La interposición del recurso, excepto en los casos en que una disposición establezca lo contrario, no suspende la ejecución del acto impugnado, si bien el Consejo, previa ponderación, suficientemente razonada, entre el perjuicio que causaría al interés colegial o a terceros la suspensión y el perjuicio que se causa al recurrente como consecuencia de la eficacia inmediata del acto recurrido, podrá suspender de oficio o a solicitud del recurrente, la ejecución del acto recurrido cuando la ejecución pueda causar perjuicios de imposible o difícil reparación, o la impugnación se fundamente en alguna de las causas de nulidad de pleno derecho previstas en el artículo 70.3 de estos Estatutos.

El acuerdo de suspensión deberá adoptarse en el plazo de treinta días contados desde la solicitud, entendiéndose concedida si transcurre el referido plazo sin haberse dictado resolución expresa.

63. artikulua.– 1.– Interes legitimoa duen edozein elkargokidek errekurritu ditzake Gobernu Batzordearen erabakiak, dagokion kontseiluaren aurrean, hilabeteko epean, erabakia hartzen denetik aurrera.

2.– Erabat deusezak izango dira elkargoko organoen egintzak baldin eta:

a) Konstituzioak babesten dituen eskubide eta askatasunen funtsezko edukiari kalte egiten badiete.

b) Gaia edo lurraldea dela eta, argi eta garbi eskumenik ez duten organoek eman badituzte.

c) Ezinezko edukia badute.

d) Zigor-zuzenbideko arau-hauste badira edo hauste horren ondorioz eman badira.

e) Legez ezarritako prozedura erabat alde batera utziz edo kide anitzeko organoek erabakiak hartzeko funtsezko arauak guztiz bazterturik eman badira.

f) Ordenamendu juridikoaren aurkako egintza adieraziak nahiz presuntziozkoak, baldin eta egintza horiek ahalmen edo eskubideak eskuratzeko bide ematen badiete, horretarako funtsezko betekizunak ez dituztenei.

g) Lege-mailako xedapen batean berariaz ezartzen bada.

3.– Deuseztagarriak dira elkargoko organoen egintzak, ordenamendu juridikoa hausten badute, agintea desbideratzen dutenak barne.

4.– Formazko akatsak bakar-bakarrik ekarriko du deuseztagarritasuna egintzak bere helburua lortzeko formazko ezinbesteko baldintzak betetzen ez dituenean, edo interesdunak babesik gabe uzten dituenean.

5.– Ezarritako epetik kanpo egindako jardunak, epearen izaerak hala eskatzen duenean bakarrik ekarriko du egintzaren deuseztagarritasuna.

LAUGARREN TITULUA

DIZIPLINA-ARAUBIDEA

64. artikulua.– Hutsegiteak eta zehapenak.

Lan-harremanetako graduatuek lanbidean jardutean egiten dituzten delitu eta falten erantzukizun penala izango dute, legeria penalean aurreikusitako moduan.

65. artikulua.– Erantzukizun zibila. Lan-harremanetako graduatuek erantzukizun zibila izango dute, dolua edo arduragabekeria dela medio, lanbideko jardunean dituzten interesak kaltetzen badituzte. Legeria zibilaren arabera, erantzukizun hori eskatuko da Justizia Auzitegien aurrean.

66. artikulua.– Diziplinako zuzenketak. Lan-harremanetako graduatuei Botere Judizialaren Lege Organi-

Artículo 63.– 1.– Los acuerdos de la Junta General serán recurribles por cualquier colegiado con interés legítimo ante el Consejo correspondiente en el plazo de un mes desde su adopción.

2.– Los actos de los órganos colegiales son nulos de pleno derecho en los casos siguientes:

a) Los que lesionen el contenido esencial de los derechos y libertades susceptibles de amparo constitucional.

b) Los dictados por órgano manifiestamente incompetente por razón de la materia o del territorio.

c) Los que tengan un contenido imposible.

d) Los que sean constitutivos de infracción penal o se dicten como consecuencia de ésta.

e) Los dictados prescindiendo total y absolutamente del procedimiento legalmente establecido o de las normas que contienen las reglas esenciales para la formación de la voluntad de los órganos colegiados.

f) Los actos expresos o presuntos contrarios al ordenamiento jurídico por los que se adquieran facultades o derechos cuando se carezca de los requisitos esenciales para su adquisición.

g) Cualquier otro que se establezca expresamente en una disposición de rango legal.

3.– Son anulables los actos de los órganos colegiales que incurran en cualquier infracción del ordenamiento jurídico, incluso la desviación de poder.

4.– El defecto de forma sólo determinará la anulabilidad cuando el acto carezca de los requisitos formales indispensables para alcanzar su fin o dé lugar a la indefensión de los interesados.

5.– La realización de actuaciones fuera del tiempo establecido para ellas sólo implicará la anulabilidad del acto cuando así lo imponga la naturaleza del término o plazo.

TÍTULO CUARTO

DEL RÉGIMEN DISCIPLINARIO

Artículo 64.– «Delitos y faltas.»

Los Graduados Sociales están sujetos a responsabilidad penal por los delitos y faltas que cometan en el ejercicio de su profesión en los términos previstos en la legislación penal.

Artículo 65.– «Responsabilidad civil.» Los Graduados Sociales están sujetos a responsabilidad civil cuando por dolo o negligencia dañen los intereses que tuvieran confiados en el ejercicio de su profesión, siendo exigible esta responsabilidad conforme a la legislación Civil ante los Tribunales de Justicia.

Artículo 66- «Correcciones disciplinarias.» En su actuación ante los órganos jurisdiccionales los Graduados

koan eta lege prozesaletan ezarritako diziplina-zuzenketak ezarri ahal zaizkie jurisdikzio-organoen aurrean jarduten dutenean.

HUTSEGITEAK ETA ZEHAPENAK

67. artikulua.– Hutsegiteen graduak. Lan-harremanetako graduatuek egindako hutsak oso larriak, larriak eta arinak izan daitezke.

68. artikulua.– Hutsegite oso larriak. Hutsegite oso larriak honako hauek dira:

a) Lanbidearen oinarrizko betebehar eta obligazioak urratzea, nahita eta hala erabakita, eta zehazki, lanbidearen duintasunari eta lanbidea zuzentzen duten arau etikoei larriki eragiten dien urratzea.

b) Lanbidean jardutean doluzko delituak egitea; ez da kontuan hartuko zenbateraino parte hartu duen.

c) Legez ezarritako bateraezintasun-erregimena haustea.

d) Kontseilu Nagusiko, autonomia erkidegoetako kontseiluetako eta Gobernu Batzordeko kideen duintasunaren eta ohorearen aurka erasotzea, beren egitekoak betetzen ari direnean, eta bai lankideen aurka lanbidean ari direnean ere.

e) Ematen dituzten agirietan dauden datuak maltzurkeriaz aldatzea.

f) Bidegabeko lehiako ekintzak egiteagatik kondenatua izatea.

g) Lanbideko intrusismoa eragiten duten ekintzetan aktiboki parte hartzea.

69. artikulua.– Hutsegite larriak. Honako hauek dira hutsegite larriak:

a) Lanbideko betebehar/obligazioetan eta korporatiboetan atzerapenak, zabarkeriak eta axolagabekeriak etengabe gertatzea, kaltea edo galera baldin badakarte.

b) Estatutuak edo elkargoko organoek beren eskumenen esparruan hartutako erabakiak ez betetzea.

c) Elkargoko kargei arreta eskaintzeko betebeharra behin eta berriro ez betetzea, larritasun handiagoko hutsa denean izan ezik.

d) Begirunerik eza larria agintariei, bezeroei edo lankideei, euren lanbide jardunean.

e) Kontseiluko edo dagokion elkargoko lehendakariaren zitazio batera justifikaziorik gabe ez joatea, horrek korporazioari kalte larria dakarkionean.

70. artikulua.– Hutsegite arinak. Hutsegite arinak honakoak dira:

Lanbideko betebeharretan kalte edo galera nabarmenik ez dakarten atzerapenak edo zabarkeriak gertatzea.

Sociales están sujetos a las correcciones disciplinarias establecidas en la Ley Orgánica del Poder Judicial y en las leyes procésales.

FALTAS Y SANCIONES

Artículo 67.– «Graduación de las faltas.» Las faltas cometidas por los Graduados Sociales pueden ser muy graves, graves y leves.

Artículo 68.– «Faltas muy graves.» Son faltas muy graves:

a) La vulneración consciente y deliberada de los deberes y obligaciones fundamentales de la profesión, y en particular la que afecte de forma grave a la dignidad de la profesión, y a las reglas éticas que la gobiernan.

b) La comisión de delitos dolosos, en cualquier grado de participación, como consecuencia del ejercicio de la profesión.

c) La infracción al régimen de incompatibilidades establecido legalmente.

d) El atentado contra la dignidad u honor de los miembros del Consejo General, de los Consejos de Comunidades Autónomas, y de la Junta de Gobierno cuando actúen en el ejercicio de sus funciones y contra los compañeros en el ejercicio profesional.

e) La alteración maliciosa de los datos consignados en documentos que expidan u otorguen.

f) Haber sido condenado por la realización de actos de competencia desleal.

g) La participación activa en actuaciones constitutivas de intrusismo profesional.

Artículo 69.– «Faltas graves.» Son faltas graves:

a) La demora, negligencia o descuidos reiterados en el cumplimiento de los deberes y obligaciones profesionales y corporativos que causen notorio perjuicio o quebranto.

b) El incumplimiento de las normas estatutarias o de los acuerdos adoptados por los órganos colegiales en el ámbito de su competencia.

c) El reiterado incumplimiento de la obligación de atender a las cargas colegiales salvo que constituya falta de mayor gravedad.

d) La desconsideración grave a autoridades, clientes o compañeros en el ejercicio de la profesión.

e) La inasistencia injustificada a una citación del Presidente del Consejo o del Colegio correspondiente cuando ello cause grave perjuicio a la corporación.

Artículo 70.– «Faltas leves.» Son faltas leves:

La demora o negligencia en el desempeño de las funciones profesionales que tengan encomendadas, siempre que no ocasione perjuicio o quebranto notorio.

Errespetua galtzea Kontseilu Nagusiko, Autonomia Erkidegoetako Kontseiluetako eta Gobernu Batzordeko kideei beren jardunean ari direnean.

Aurreko artikuluan adierazitako egintzak, baldin eta arau-hauste larritzat jotzeko adinakoak ez badira.

71. artikulua.– Zehapenak. Honako zehapen hauek ezar daitezke:

1.– Hutsegite oso larriengatik:

a) Lanbidean jardutea galaraztea, gutxienez, urtebete eta egun batez.

b) Elkargokide-eskubideak kentzea, gutxienez, urtebete eta egun batez.

2.– Hutsegite larriengatik:

a) Lanbidean jardutea galaraztea, gehienez ere, sei hilabetez.

b) Elkargokide-eskubideak kentzea, gehienez ere, sei hilabetez.

3.– Hutsegite arinengatik:

a) Agiraka pribatua.

b) Idatzizko ohartarazpena.

72. artikulua.– Eskumena.

1.– Diziplina-faltengatiko zehapenak jartzeko prozedura zehatzeko ahalari buruzko administrazio-legeria orokorrean aurreikusitakoaren araberakoa izango da.

2.– Gobernu Batzordeari dagokio diziplina-espedientea irekitzea, instruktorea izendatzea -batzordean kargu hori eskuordetzen zaiona— eta, behar izanez gero, idazkaria izendatzea.

3.– Gobernu Batzordeak du zehapenak ezartzeko erabateko eskumena. Horretarako deitutako bilkurara bertaratutako kideek isilpean emandako botoen gehiengoz hartuko ditu erabakiak Gobernu Batzordeak, espedientearen instrukzio-egile lanak egin dituen kidea kanpo utzita.

4.– Gobernu Batzordeak erabakiko du hutsegite oso larriagatik ezarri beharreko zehapena, isilpeko bozketaren bidez eta bertako kideen bi herenen adostasunarekin. Justifikaziorik gabe bertaratzen ez den batzordeko kideak elkargoko artezkaritza-organoko kide izateari utziko dio.

73. artikulua.– Gobernu Batzordeko kideekiko eskumenak.

1.– Kontseilu Nagusiari dagozkio elkargoetako gobernu batzordeetako eta autonomia erkidegoetako elkargoen kontseiluetako kideei dagozkien diziplina-ahalmenak, betiere, aplikatu beharreko legeriak —autonomia erkidegokoak— Autonomia Erkidegoko Elkargoen Kontseiluari ahalmen hori ematen ez badio.

La falta de respeto a los miembros de Consejo General, de los Consejos de Comunidades Autónomas y de la Junta de Gobierno en el ejercicio de sus funciones.

Los actos enumerados en el artículo anterior cuando no tuviesen entidad suficiente para ser considerados como graves.

Artículo 71.– «Sanciones.» Las sanciones que pueden imponerse son:

1.– Por faltas muy graves:

a) Suspensión del ejercicio de la profesión por plazo mínimo de un año y un día.

b) Suspensión de los derechos colegiales por plazo mínimo de un año y un día.

2.– Por faltas graves:

a) Suspensión del ejercicio de la profesión por un plazo no superior a seis meses.

b) Suspensión de los derechos colegiales por un plazo no superior a seis meses.

3.– Por faltas leves:

a) Reprensión privada.

b) Apercibimiento por escrito.

Artículo 72.– «Competencia.»

1.– El procedimiento para la imposición de sanciones por faltas disciplinarias se ajustará a lo previsto en la legislación administrativa general relativa al ejercicio de la potestad sancionadora.

2.– Compete a la Junta de Gobierno correspondiente la incoación del expediente disciplinario y el nombramiento de Instructor en la persona de la Junta en quien se delegue y, en su caso, del Secretario.

3.– La imposición de sanciones es de la exclusiva competencia de la Junta de Gobierno correspondiente, que adoptará sus acuerdos por mayoría de votos emitidos secretamente entre los miembros presentes en sesión convocada al efecto, excluido el miembro de la Junta de Gobierno que haya realizado la función de Instructor del expediente.

4.– La sanción a imponer por falta muy grave debe ser adoptada por la Junta de Gobierno correspondiente mediante votación secreta y con la conformidad de las dos terceras partes de los miembros componentes de ella. El miembro de la Junta que, injustificadamente, no concurriese dejará de pertenecer al órgano rector del Colegio.

Artículo 73.– «Competencias en relación con los miembros de las Juntas de Gobierno.»

1.– Las facultades disciplinarias en relación con los miembros de las Juntas de Gobierno de los Colegios y de los Consejos de Colegios de Comunidades Autónomas corresponde al Consejo General salvo que la legislación autonómica aplicable la atribuya al Consejo de Colegios de la correspondiente Comunidad Autónoma.

2.– Kontseilu Nagusiak izango du beti bertako kideekiko diziplina-ahalmena.

3.– Autonomia erkidegoetako Elkargoetako Kontseiluen, edo kasua denean, Kontseilu Nagusiaren erabakien aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio erabakia hartu duen kontseiluari berari, aurreko paragrafoetan aurreikusitako kasuetan; nolanahi ere, beti aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi errekurtsoa.

74. artikulua.– Proportzionaltasuna. Zehapenak jartzerakoan, egindako arau-haustearen larritasunaren neurrikoa izan behar du zehapenak. Zein zehapen jarri erabakitzeko irizpide gisa kontuan hartuko dira ekintza behin eta berriz nahita egin izana eta eragindako kalteak zer-nolakoak diren.

75. artikulua.– Betearaztea. 1.– Diziplinazko hutsegiteak administrazio-bidean irmoak direnean betearaziko dira.

2.– Lanbidean jardutea galaraztea edo Elkargotik botatzea dakarten zehapenek lan-harremanetako graduatuen Espainiako elkargo guztietan izango dute eragina, eta Kontseilu Nagusiari jakinarazi beharko zaizkio, Kontseilu Nagusiak gainerako elkargoetara igor ditzan. Elkargoek zehatutako pertsona ez dute elkargoan sartuko zehapena indarrean dagoen bitartean.

76. artikulua.– Diziplina-erantzukizuna iraungitzea.

1.– Elkargokideen diziplina-erantzukizuna iraungitzeko erak: zehapena betetzea, elkargokidearen heriotza, eta hutsegite edo zehapenak preskribatzea.

2.– Elkargoan baja hartzeak ez dakar berarekin alta-aldian sortutako diziplina-erantzukizuna iraungitzea. Aitzitik burutu egingo da diziplina-prozedura eta eten zehapena, harik eta elkargokideak —berriro ere elkargoan alta hartzen badu— zehapena bete arte.

PRESKRIPZIOA

77. artikulua.– Hutsegiteen preskripzio-epeak.

1.– Hutsegite oso larriek hiru urtera preskribatuko dute, larriak urte bira eta arinak urtebetera.

2.– Arau-haustea egin zen egunetik hasita zenbatuko da arau-haustearen preskripzio-epea.

3.– Zehapen-prozedura bat hasiz gero, eta elkargokidea horren jakitun egonda, preskripzioa eten egingo da. Zehapen-espedientea bi hilabete baino gehiago geldirik badago, eta horren errua ez bada zehatutako elkargokidearena, preskripzio epea berriz hasiko da.

2.– Las facultades disciplinarias en relación con los miembros del Consejo General serán competencia del Consejo General, en todo caso.

3.– Contra los acuerdos de los Consejos de Colegios de las Comunidades Autónomas o, en su caso, del Consejo General, en los casos previstos en los párrafos precedentes, cabrá recurso potestativo de reposición ante el mismo Consejo que ha adoptado el acuerdo y, en todo caso, recurso contencioso-administrativo.

Artículo 74.– «Proporcionalidad.» En la imposición de las sanciones se deberá guardar la debida proporción entre la gravedad del hecho constitutivo de la infracción y la sanción aplicada, considerándose especialmente la existencia de intencionalidad o reiteración, y la naturaleza de los perjuicios causados, como criterios para la graduación de la sanción.

Artículo 75.– «Ejecución.» 1.– Las sanciones disciplinarias se ejecutarán una vez que sean firmes en vía administrativa.

2.– Las sanciones que impliquen suspensión del ejercicio de la profesión o expulsión de un Colegio tendrán efectos en el ámbito de todos los Colegios de Graduados Sociales de España, a cuyo fin habrán de ser comunicadas al Consejo General para que éste las traslade a los demás Colegios, que se abstendrán de incorporar al sancionado mientras esté vigente la sanción.

Artículo 76.– «Extinción de la responsabilidad disciplinaria.»

1.– La responsabilidad disciplinaria de los colegiados se extingue por el cumplimiento de la sanción, la muerte del colegiado, la prescripción de la falta y la prescripción de la sanción.

2.– La baja en el Colegio no extingue la responsabilidad disciplinaria contraída durante el período de alta, sino que se concluirá el procedimiento disciplinario y la sanción quedará en suspenso para ser cumplida si el colegiado causase nuevamente alta en el Colegio.

PRESCRIPCIÓN

Artículo 77.– «Plazos de prescripción de las faltas.»

1.– Las faltas muy graves prescribirán a los tres años, las graves a los dos años y las leves al año.

2.– El plazo de prescripción de las infracciones comenzará a contarse desde el día en que la infracción se hubiera cometido.

3.– Interrumpirá la prescripción la iniciación, con conocimiento del colegiado, del procedimiento sancionador, reanudándose de nuevo el plazo de prescripción si el expediente sancionador estuviera paralizado durante más de dos meses por causa no imputable al colegiado inculpado.

78. artikulua.– Zehapenen preskripzio-epeak.

1.– Hutsegite oso larriengatik ezarritako zehapenek hiru urtera preskribatuko dute, hutsegite larriengatik ezarritakoek bi urtera, eta hutsegite arinengatik ezarritakoek urtebetera.

2.– Zehapenen preskripzio-epea zehapena ezarri duen ebazpena irmo bihurtu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da kontatzen.

3.– Preskripzio-epearen zenbaketa gelditu egingo da, betearazteko prozedura hasten bada, elkargokidea jakitun dela. Zehatutako elkargokideari ezin egotz dakiokeen arrazoiren bat dela-eta, prozedura hori sei hilabetetik gora geldirik bada, berriro jarraituko da epea zenbatzen.

4.– Zehatutako elkargokideak zehapena betetzea urratzen badu, zehapena preskribatzeko epea urratzea gertatu den egunetik hasiko da kontatzen.

DIZIPLINA-ZUZENKETAK ETA –ZEHAPENAK IDAZTEA

79. artikulua.– Idazpenak. 1.– Lan-harremanetako graduatuen epaitegi edo auzitegiek ezartzen dituzten diziplina-zuzenketak norberaren espedientean jasoko dira.

2.– Diziplina-zehapen korporatiboak norberaren espedientean jasoko dira beti.

80. artikulua.– Ezeztatzeak. 1.– Agiraka pribatuko zehapenen eta ohartarazpenen idatz-oharrak ezeztatuta geldituko dira, irmo bihurtu eta sei hilabeteko epea pasatzeagatik, epe horretan zehatutakoak ez badu zehapenaren ezarpena amaitzen duen beste diziplina-prozedurarik eragin.

2.– Lanbidean jardutea galarazten duen zehapenaren idazpena ezeztatu ahal izango da, interesdunak hala eskatuta, zehapen irmoa ezarri eta gutxienez bi edo lau urte igarotzen direnean, hutsegite larria edo oso larria izan, eta tarte horretan zehatutakoak ez badu eragin zehapenaren ezarpena amaitzen duen diziplina-prozedurarik.

3.– Elkargotik bidaltzeko zehapena ezarri zaion elkargokideak birgaitzea eskatu ahal izango dio Gobernu Batzordeari, zehapenaren ezarpen irmoa egin eta gutxienez sei urte igaro direnean. Horretarako, dagokion espedientea izapidetuko da: interesdunari entzunaldia egingo zaio, Gobernu Batzordeak arrazoizko ebazpena emango du, isilpeko bozketan, eta beharrezkoa izango da kideen bi herenak aldeko botoa ematea.

Artículo 78.– «Plazos de prescripción de las sanciones.»

1.– Las sanciones impuestas por faltas muy graves prescribirán a los tres años, las impuestas por faltas graves a los dos años y las impuestas por faltas leves al año.

2.– El plazo de prescripción de las sanciones comenzará a contarse desde el día siguiente a aquél en que adquiera firmeza la resolución por la que se impone la sanción.

3.– Interrumpirá la prescripción la iniciación, con conocimiento del colegiado, del procedimiento de ejecución, volviendo a transcurrir de nuevo el plazo si aquél está paralizado durante más de seis meses por causa no imputable al colegiado sancionado.

4.– El plazo de prescripción de la sanción cuando el colegiado sancionado quebranta su cumplimiento comenzará a contarse desde la fecha del quebrantamiento.

ANOTACIÓN DE CORRECCIONES Y SANCIONES DISCIPLINARIAS

Artículo 79.– «Anotación.» 1.– Las correcciones disciplinarias que impongan los Juzgados o Tribunales al Graduado Social se harán constaren todo caso en el expediente personal de éste.

2.– Las sanciones disciplinarias corporativas se harán constar en todo caso en el expediente personal.

Artículo 80.– «Supuestos de cancelación.» 1.– La anotación de las sanciones de reprensión privada y apercibimiento por escrito quedarán canceladas por el transcurso del plazo de seis meses desde que adquirió firmeza, si durante ese tiempo no hubiera dado lugar el sancionado a otro procedimiento disciplinario que termine con la imposición de sanción.

2.– La anotación de la sanción de suspensión podrá cancelarse, a instancias del interesado, cuando hayan transcurrido al menos dos o cuatro años desde la imposición firme de la sanción, según que se trate de falta grave o muy grave siempre y cuando durante ese tiempo no hubiera dado lugar el sancionado a nuevo procedimiento disciplinario que termine con la imposición de sanción.

3.– El colegiado sancionado con la expulsión del Colegio podrá solicitar de la Junta de Gobierno la rehabilitación cuando hayan transcurrido al menos seis años desde la imposición firme de la sanción. A tal efecto, se instruirá el oportuno expediente, con audiencia del interesado, que resolverá la Junta de Gobierno de forma motivada en votación secreta siendo necesario el voto favorable de las dos terceras partes de sus miembros.

BOSGARREN TITULUA

EKONOMIA- ETA FINANTZA-ARAUBIDEA

LEHENENGO KAPITULUA
BALIABIDE-MOTAK

81. artikulua.– Hauek dira elkargoaren baliabide arruntak:

a) Sartzeagatik kobratzen direnak, ohiko eta aparteko kuotak, derramak ere barne.

b) Elkargoko ondarea osatzen duten ondasun edo eskubideen etekinak.

c) Ordaindutako txosten, irizpen, azterketa eta bestelako zerbitzuak lantzeko ezartzen diren eskubideak.

d) Elkargokideen sinadura aitortzeagatiko edo legeztatzeagatiko eskubideak.

e) Ziurtagiri fede-emaileak ematetik eta agiriak konpultsatzetik edo ematetik lortutako diru-baliabideak.

f) Elkargoko inprimakien eta argitalpenen salmentatik, eta ikastaroen, mintegien eta hitzaldien antolaketatik eratortzen direnak.

g) Gobernu Batzordeak ezarritako beste kontzeptu batzuengatik eratortzen direnak, legezkoak baldin badira.

82. artikulua.– Hauek dira elkargoaren aparteko baliabideak:

a) Jatorri publiko edo pribatuko dotazioak edo diru-laguntzak.

b) Herentziaz eta doako edo kostu bidezko tituluekin eskuratutako beste edozein ondasun.

c) Legez eratortzen den eta baliabide arrunt ez den beste edozein.

83. artikulua.– Elkargoa zaintzeko beharrezkoak diren gastuak, arruntak nahiz apartekoak, elkargo-mota anitzen artean banatuko dira, proportzionaltasuna, elkargokide-kopurua eta beste gorabehera batzuk kontuan hartuta, Gobernu Batzordearen iritziz zuzenena den banaketa lortu ahal izateko.

BIGARREN KAPITULUA
INBERTSIOAK, ZAINTZA ETA ADMINISTRAZIOA

84. artikulua.– 1.– Elkargoko Gobernu Batzordeak inbertitu, administratu eta zainduko du elkargoko ondarea.

2. Elkargoko ondarea bere izaera korporatiboari arreta emateko inbertituko da eta Gobernu Batzorde osoa izango da inbertsioen erantzulea, eta bai Batzar Nagusiaren edo estatuko edo autonomia erkidegoko elkargoen

TÍTULO QUINTO

DEL RÉGIMEN ECONÓMICO-FINANCIERO

CAPÍTULO PRIMERO
CLASES DE RECURSOS

Artículo 81.– Constituyen recursos ordinarios del Colegio:

a) Los derechos de incorporación, cuotas ordinarias y extraordinarias, incluidas las derramas.

b) Los rendimientos de los bienes y derechos que constituyan el patrimonio colegial.

c) Los derechos que se establezcan por la elaboración remunerada de informes, dictámenes, estudios y otros servicios.

d) Los derechos por reconocimiento o legalización de firma de los colegiados.

e) Los derechos por expedición de certificaciones fehacientes y derechos por compulsa o expedición de documentos.

f) Los derivados de las ventas de impresos y publicaciones colegiales, y de la organización de cursos, seminarios y conferencias.

g) Los provenientes por otros conceptos que legalmente procedan, establecidos por la Junta de Gobierno.

Artículo 82.– Constituyen recursos extraordinarios del Colegio:

a) Las dotaciones o subvenciones de procedencia pública o privada.

b) Cualesquiera bienes adquiridos por herencia y otro título gratuito u oneroso.

c) Cualesquiera otros que legalmente procedan y no constituyan recursos ordinarios.

Artículo 83.– Los gastos necesarios para el mantenimiento del Colegio, tanto ordinarios como extraordinarios, serán distribuidos entre las diferentes modalidades colegiales, atendiendo a criterios de proporcionalidad, número de colegiados y otras circunstancias, con el fin de lograr una distribución lo más justa posible a criterio de la Junta de Gobierno.

CAPÍTULO SEGUNDO
DE LAS INVERSIONES, CUSTODIA Y ADMINISTRACIÓN

Artículo 84.– 1.– El patrimonio colegial será invertido, administrado y custodiado por la Junta de Gobierno del Colegio.

2.– El patrimonio del Colegio se invertirá en las atenciones inherentes a su existencia corporativa y la Junta de Gobierno en pleno será la responsable de las inversiones, así como de los perjuicios que puedan so-

kontseiluaren erabakietan estatutu hauetan xedatutakoa ez betetzeagatik sor daitezkeen kalteen erantzulea ere.

85. artikulua.– Elkargoa desegiten bada, egiteke dauden betebehar guztiak burutu ondoren gelditzen den ondarerik izanez gero, Estatuko Kontseilu Nagusiaren edo Autonomia Erkidegokoaren esku gelditzuko da.

SEIGARREN TITULUA

ELKARGOKO LANGILEAK

86. artikulua.– Egiteko korporatiboak gauzatu ahal izateko, Gobernu Batzordeak kudeatzaile bat, eta/edo, behar izanez gero, administrari bat kontratatu ahal izango du. Kudeatzailea izango da lehendakariak edo idazkariak agintzen dizkion egitekoen erantzulea Gobernu Batzordearen aurrean.

AZKEN XEDAPENAK

Estatutu hauek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean.

brevenir por incumplimiento de lo dispuesto en estos Estatutos, en los acuerdos de la Asamblea General o del Consejo de Colegios Estatal o Autonómico.

Artículo 85.– En caso de disolución del Colegio, el patrimonio sobrante una vez cumplidas todas las obligaciones pendientes quedará, si lo hubiere, a disposición del Consejo General Estatal o Autonómico.

TÍTULO SEXTO

DE LOS EMPLEADOS DEL COLEGIO

Artículo 86.– Para el desarrollo de las tareas corporativas, la Junta de Gobierno podrá contratar un Gerente y/o en su caso el correspondiente personal administrativo, que será el responsable ante la misma de las funciones que se le encomienden por parte del Presidente o del Secretario.

DISPOSICIONES FINALES

El presente Estatuto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.